

Aditz langutzaile batua

ZENBAIT ARGITASUN ETA ARGIBIDE

Azkenik, Euskaltzaindiak ontzat hartu du eta birretsi euskal aditz laguntzaile batua. Oinharri izan ditu horretarako behiala izendatu zuen aditz batzordeak zatika aurkeztu dizkion adizkiak. Niri omen dagokit, izenez bederen batzorde horren buru naizenez gero, gure lanaren zer-nolakoa, luze-laburra eta zertarakoa hitz bitan azaltzea. Hona, bada, ahal bezain laburzki, Euskaltzaindiari eta euskaldun guztiei zor diedana.

Aspaldi esana dut aditza genuela batasun bidean aurki genezakeen behaztoporik bihurriena: hautatu behar, eta nekez hautatuko. Adizki sail baten alde mintzatzen baldin bagara, izan ere, badirudi baztertu eta arbuiatu egiten ditugula, nora ezean, horien kidekoak. Eta baztergarriak oro (berrikeriak, itxuragaiztoko formak eta abar) baztertu ondoan ere, bada beti, edozein har-eman adierazteko, euskal adizki zuzenik aski eta gehiegi. Hiztegi hauzietan, horrelako ugaritasuna ez da maiz asko aberastasuna baizik: *agitu*-ri esate baterako ez dio kalterik egiten aldamenean *gertatu* nahiz *jazo* edukitzeak, ezta *erori*-ri ere *jausi*-ren hurbiltasunak. Gramatika alorrean, ordea, berezko dirudi bata ala bestea, ez bata nahiz bestea, hartu behar genukeela, bata ala bestea utzi bertan behera: *gizon-ei* ala *gizon-ai*, *gizon-eri* ala *gizon-er*, ez guztiak nahaste.

Herabe nuen, beraz, eta duda-mudatan nenbilen batasunerako lehen urratsak egiten eta lurra iraultzen hasi ginen hartan. Gero

ikusi dut, ordea, non-nahi nabari zen eskea eta entzun nondik-nahi zetorren deia, ez baitira guti izan prestatzen ari diren liburu eta idazlanetarako gidaritze bila hurbildu zaizkigunak: nahiago zuten, dirudienez, gidaritze eskasa inolazko gidaritzarik eza baino. Batzorde lagunek, gainera, genuen premia larriaz ongi jabeturik, gogotik hartu zuten egotzi zitzaien eginbidea eta, gogotik hartzeaz gainera, etengabe ihardun dute azken fineraino bukatu arte.

Lerro lerro ipinirik aurkituko duzue hemen euskal aditz laguntzaile osoa (aditz laguntzaile *batez* mintzatuko naiz, bat ez bada ere), ez euskal aditza erabat. Falta direnak nabari dira: ez dago hemen ez *doa* ez *dakar*, ez horien antzeko beste sintetikorik. Beste aldi batetarako utziak izan dira, hain premiako ez genituelakoan. Aditz izenkiak ere ez dira orain agertzen: ez duzue ez *izaten* ez *izaiten*, ez *etorten* ez *etortzen*, ez *egonen* ez *egongo* ikusiko.

Bestalde, berriz, bat delako aditz laguntzaile hori osorik dator, ahalik eta osoen (1). Hor datoz, besteak beste, nik sekula erabili —eta agian sekula erabiliko— ez ditudan formak ere. Batzordekoak ez diraitsuak eta badakite zerbait adizkien maiztasunaz: *zaio*, alegia, maizago agertuko dela nornahiren luma- ezpainen *dakion* baino, eta *badu* areago *badeza* baino. Ez dute haatik, hizkuntza murriztu nahi izan, eta dituen eta izan ditzakeen aberastasunak oro gordetzen saiatu dira, egun edo bihar onerako izan daitezkeelakoan. Behin lanari lotu zaizkionez gero, nahiago izan dute lana burutik burura egin.

Hau ez da irakaspide bat: irakasle ikasientzat egina izan da, ez ikasleentzat. Alfer lana litzateke, beraz, hemen ez dauden argibide bila honera jotzea: irakasleari dagokio forma hauek nola erabili behar diren irakastea, batzuen eta besteen arteko bereizkuntzak adieraztea. Irakasle bakoitzaren eginbidea izango ere da nola —zein ordenatan— eta noraino behar zaizkion adizkiak ikasle sail bakoitzari irakatsi.

Norentzat eta zertarako aritu garen galdatuko didazue, behar bada. Erantzuna eta ihardespena aspaldixko ezaguna bada ere,

(1) Egia esan, mintzalaguna aipatzen duten adizkiak (*ez nauk, ez naun, ez nauzu etorri, ez naiz etorri*-ren ordeko direnean, eta horien gisakoak) ez ditugu oraingoa sartu.

ez da agian alferreko izango zaharrak hemen berritzea. Halaz guztiz ere, izango da, segur aski, entzungor egingo duenik.

Hobeko dut lehenbizi esan zertarako ez den egin. Ez du euskalkiak eta euskalkietako —batez ere, euskalki landuetako— aditza saihesteko eta suntsitzeko asmorik. Nola arbuia dezake Euskaltzaindiak euskaldunena den gauzarik? Euskalkiek badute gure artean, onenean edo gaitzenean ere, luzaroko bizitokirik, ahoz eta izkribuz. Aspaldidanik, ordea, zenbaitek, gero eta gehiagok, nahi du gurean euskalkien bereizkuntzen gainetik eta urrutiago legokeen hizkera bat: nahi du eta behar du. Zatitua eta berezia dagoen etxeak ez omen du iraungo; ezta ere, dirudienez, bihotz-erraietako etendurak eta ezberdintasunak gainditzeko gauza ez den hizkuntzak. Eta gauza ez bada, ez dadila behintzat izan guk, euskaldunok, beharrezko uste genituen eginahalak egin ez ditugulako egin behar genituen orduan.

Batasun hori, behin eta berriro esan da, ez dugu batipat behar literatur hizkuntzan, harako amets ditugun mailako fruituak ekar ditzakeen hartan. Hainbeste eta hainbeste hizkuntza batu eskolan eta eskolatik gora irakasten direnean, ez dira bestek ez bezala mintzatzeko dohain eta ahalmena duten bakanentzat irakasten: guztientzat, hiztun trebe eta dorpeentzat, irakasten dira. Ez elaberri eder eta poema zoragarriak sor ditzaten, baizik eta edozein, egunoroko premien asegarri, prosa hizkera biluzi, zehatz, zorrotz eta zailu baten jabe izan dadin, herriak eta eskualdeak zehar elkarren arteko har-emanetarako mintza eta adierazpide landu eta bateratua da non-nahi ikasten eta irakasten dena. Ez dezala, behinik-behin, inork egiaz esan gure artean gogo lukeen tresna falta zaionik.

Hemen bildurik daudenak, gainera, ez dira atzerrian bilduak, are gutiago inoren amets herrian: direnak, euskalkietarik hartuak dira. Ez oraingo euskalki bakar batetik, jakina, lehenagoko eta egungoen artetik baino. Joera bat hartu behar izan dugu —norakoa den, laster igerriko dio irakurle zuhurrak—, baina ezin bestean, alde guztietara makurtzeko eta hedatzeko genuen gogo biziari gogor eginaz.

Batzar lagunetik dudak eskerra eta zorra adierazi nahi nituzke, azkenera baino lehen. Gogotik egin dute lan; nork bere iritzien oinharriak ederki miratuak zituen eta, halaz guztiz, ba-

koitzaren uste berezi bezain bidezkoen gaineratik, nagusi agertu da beti batasun egarria.

Orobat diot batzordeari kontseilu eta laguntza eskaini dioten guztiez, eta ez dira ez guti ez nolana hikoak izan. Funtsezko arrazoietan finkaturik nahiago zituzten bideak ez baditugu beti hartu, ez ditugu inolaz ere gutietsi. Aitzitik, egia esan behar bada, gure artean aipatuak eta kontutan hartuak ziren maizenik ordu-rako, gero, gehienek usteari amore emanaz, hobetsi ez bagenituen ere. Gehienek, gainera, nahiago zuten forma bakarra hautatu, ahal zitekeelarik (2).

Ez batzordekoek ez Euskaltzaindiak ez dute uste lagun artean prestatu dugun adizki bilduma honen bitartez aditz laguntzaile batua eskura dugunik, besterik gabe. Batasuna ez da erdietsiko idazleek lehenbizi, hiztunek gero, forma berdinak eta berberak onhartu eta erabiliko dituztenean baizik. Euskaltzaindiak batasun bide bat eskaintzen die euskaldunei, bera ere euskaldun delarik, zernahi bide, denik malkarrena ere, biderik eza baino hobe delakoan. Euskaldunok dugu orain hitza. Mintzabeharra zen, halaz guztiz, Euskaltzaindia, sortu zenean bere bizkar hartu zuen zorra —batasun bidean aitzindari eta gidari izatekoa, alegia— zertxobait kitatzeko. Ez baita artean, eta mende erdia joana dugu, abiatu baizik egiteko horretan.

MITXELENA

Donostian, 1973 abuztuak 10.

(2) Dudazkoenak *-teke-* eta *-kete-* atzizkiak daramazkiten formak dira, berauetan batzordekoen eritziak beste guztietan baino bateragaitzagoak baitziren.

ADITZ BATZORDEA

Atal eragilea:

Luis Mitxelena, buru
Piarres Lafitte
Imanol Berriatua
Guillaume Eppherre
Patxi Altuna, idazkari

Kontseilu atala:

Lino Akesolo
Gabriel Aresti
Isidro Baztarrika
Jon Etxaide
Joseba Intxausti
Damaso Intza
Polikarpo Iraizoz
Xabier Kintana
René Lafon
Fernando Mendizabal
Inazio Omaetxebarria
Josu Oregi
Txillardegui (J.L.A.E.)

Arantzazun, 1972ko Uztailaren 28an, arratsaldeko hiru t'erdietan, bildu dira: Villasante buru, Haritschelhar buru-ordeko, Diharce, Irigoyen, Mitxelena, Satrustegi euskaltzainak; Altuna, Aresti, Berriatua, Intxausti, Kintana eta Oregi euskaltzain laguntzaile, euskal aditz batuaren batzordeko direnez eta San Martin idazkari eta Lizundia idazkari-ordezko direlarik. Arrue, Dassance, Eppherre, Erkiaga, A. Intza, Irigaray, Lafitte, Larzabal eta Lojendio jaunek ezin etorria adierazi dute, baita Akesolo batzordekoak ere.

Bilera hau alde z aurretik axola handikotzat hartua zen eta hala jakinerazi zien euskaltzain oso guztiei lehendakariak Uztailaren 17-an egindako deian.

Lojendio jaunak bidalitako iritzi eta oharrak irakurri dira. Irigaray jaunarena ere bai.

Mitxelena jaunak, aditz batzordeko buru bezala adierazten du zer eta nola eraman diren aditz batuaren lanak. Ondorean, aditz batzordekoek aurkeztu duten lana, orriz orri, forma bakoitza banan bana aztertu da.

Bigarren batzarrerako utzi da azken orraztapena eta onartze gorabehera, bigarren batzarreko deiari jarraituz eta Arautegiaren 25. artikulua araberan.

Arantzazun, 1972ko Uztailaren 29an, goizeko hamaiketan bildu dira: Villasante buru, Haritschelhar buru-ordeko, Diharce, Irigoyen, Mitxelena, Satrustegi euskaltzainak; Altuna, Berriatua, Intxausti, Kintana, laguntzaile eta aditz batzordekoak; San Martin idazkari eta Lizundia idazkari-ordezko direlarik. Arrue, Dassance, Eppherre, Erkiaga, A. Intza, Irigaray, Lafitte, Larzabal eta Lojendio euskaltzain osoek eta Akesolo, Aresti eta Oregi euskaltzain laguntzaile eta batzordekoek ezin etorria adierazi dute.

Bilkura honen gaia izan da aditz batzordeak prestatu duen batasunerako lana bigarren aldiz aztertzea. Batzordeak ez du oraindik aditz laguntzailearen zati bat baizik aurkeztu. Bildu direnek lan hori ikusi ondoan erabaki hau hartu dute, euskaltzain osoak, aho batez, mintzatzen direlarik:

IKUSI DIRENAK LIRAKE, EUSKALTZAINDIAREN IRITZIZ, ORAINGOZ EUSKERA IDATZIAREN BATASUNERAKO ADITZ JOKORIK EGOKIENAK. BATASUNARI BEGIRA HARTZEN DA, BERAZ, ERABAKI HAU, EUSKALKIEI DAGOZKIEN FORMA BEREZIAK ARBUIATU GABE

Euskaltzain oso guztiei, ezer esatekorik balute, eskatzen zaie iritzia ager dezaten izkribuz, orain onartu den adizki zerrendari buruz, Irailaren 10ean, Auritzen egingo den bilkura egunerako; onuragarri litzake iritzi hau, batez ere, zehazki finkatu gabe, bitara edo gehiagotara, gelditu diren adizkiei dagokienez.

Iraileko batzarre arruntean, birretsia emango zaio erabaki honi.

Besterik gabe bukatzen da bilkura, batzarkideek agiri hau izenpetzen dutelarik.

ADITZ BATUARI (LEHEN ZATIA) BIRRESPENA EMATEKOAN

Jaunak:

Batasunaren hauzian aditzarena da, noski, zailenetako pundua eta bai axola handienetakoa ere: hori ikusten ez duenik ez dago, ene ustez. Aditz batasuna egin ote daiteken istudiatzeko, eta egitekotan, nola egin aztertzeko, batzorde bat jar zezala eskatu zitzaion Euskaltzaindiari, eta honek Bilbaon 1970ko Iraileko batzarraren batzorde hori izendatzea erabaki zuen. Eta gero Donostian urte bereko azaroan batzordea izendatu zen.

Beraz, ia bi urte da batzordea jarririk dela. Hasieran motel antzean ibili zela uste dut. Batzordeko jaunek elkarrekin biltzeko egokiera gutxitxo. Iritziak ere kontu hontan oso desberdinak izan (eta ez naiz bat ere harritzen). Batzorde-buru den Mitxelena jauna ere urrutitxo genuen, eta hortik ere oztopo handia zetorren.

Mitxelena gure artean egon ohi den denbora-aldiak baliatuz, egin ziren hala ere lehen bilerak. Eta hasierako izotz hura urtuaz joan zen. Horrek ez du esan nahi gauza guztietan iritziak bat izatera heldu denik.

Beste aldetik, hesparru hau luze-zabala izanik, elkar aditzea edo iritzien bateratzea errazagoa zen punduetarik hastea pentsatu zuten, eta era hortara lanari lotu ziren.

Euskaltzaindiari, geroago eta usuago, eskeak datozkio aditz batze hau egin dezan. Kasu bat aipa dezadan, guztiok izango duzue go-goan Iratzeder jaunak joan deneko batzarre batera ekarri zigun galdea: Biblia Euskal-Herri osorako nahi dutela euskeratu, eta lehen-bai-lehen aditz batu hori eman dezagula, lan hortan dabilzanak horren beharrearantz direlako. Eta, bai, hortan da Euskaltzaindia, baina nahi bezain aguro gauzak ezin egin.

Azken Aste Sanduan batzordeak zerbait prestatu eta Apirilaren 4ean egindako euskaltzain osoen bilkura berezira txosten bat ekarri zuen: aditz batuaren lehen urratsak izan ziren haiek. Baina gauza behar bezain umotua ez zela ikusiz, dena uda partearako utzi zen.

Uda partea hutsaren bahian igaro ez zedin, Euskaltzaindiaren zuzendaritzak hiru egunetako jardunak antolatu zituen Arantzazun, uztailearen 27, 28 eta 29an, euskaltzain oso eta batzordekoiei dei eginez, bilera haiek axola handikotzat joaz eta Arautegiaren terminologian bilkura barrengo bereziak zirela aurretik abisatuz. Hobeto esateko, 27an batzordekoak bakarrik bildu ziren, hurrengo egunetako bilkura berezi horietara presentatu behar zen aditzari azken eskua emateko. Hurrengo bi egunetan euskaltzain osoek eta batzordekoek eskuz-esku lan eginez, bana-banaka aztertu eta eztabaidatu zuten proposamendu hura. Eta azkenean, bigarren bilkura berezian, uztailearen 29an, onartua izan zen. Dударik gabe, egun handia eta gogoangarria izan zen hura. Euskeraren etorkizunerako urrats larri bat egindako eguna.

Orduko agiriak garbi dionez, hautatu diren aditz formekin ez dira euskalkienak arbuatzen; baina euskera idatziaren batasunerako horiek dira, Euskaltzaindiaren iritziz, oraingoz behintzat, aditz jokorik egokienak.

Beraz, aditzaren zati handi bat onarturik eta erabakirik gelditu zen barrengo bilkura berezi hartan. Baina aditz jokoetan ikusiko duzuen bezala, badira forma batzuk zalantzazkoak edo interrogazio marka batez markatuak. Horregatik, eta hauzi hau hain axola handiko gauza zenez, bilera haietara etortzerik izan ez zuten euskaltzain osoei oharrak biartzeko epea eman behar zitzaizela pentsatu zen, batez ere zalantzazko forma horiek, ahal izatekotan, argitzeko. Oharrak biartzeko epea Auritzeko egunera arte jarri zen. Gero ratifikazioa Iraileko batzarre hontan ematekotan. "Irai-

leko batzarre arruntean, birretsia emango zaio erabaki honi": horrela dio uztaileko agiriak.

Nik dakidala, hiru ohar hartu ziren: Oregi, Manuel Lekuona eta Alfonso Irigoienena. Eta hirurak batzorde-buru den Mitxelena-nari bidali zitzaizkion.

Damurik, gaur ere ez dugu geure artean Mitxelena jauna. Baina haren orde, batzorde-idazkari den Aita Altunak emango dizkigu arazo guzti honi dagozkion xehetasun eta garbitasunak.

Gaur, bada, onartu zen aditz zatiari ratifikazio edo birretsia ematea eskatzen zaie euskaltzain osoei. Etortzerik ez duten euskaltzain osoek beste euskaltzain oso baten bidez eman dezakete beren botoa.

Bukatzeko: aditz batzordeari, egindako lanagatik, neure eta guztion eskerrona eta txaloa agertu nahi diet. Eta bien bitartean, lehen urrats handi hau egin ondoren, berriz ere lanari lot eta aurrera segi dezaten eskatzen diet.

Euskaltzaindiak batasunerako proposatzen duen aditz batu hau aurtengo Euskera-ren 2. zenbakian agertuko da.

Donostia,29-IX-72

EUSKALTZAINDIKO BATZAR AGIRIAREN ZATIA

(1972-IX-29)

d) *Aditz batuari (lehen zatia) birretsia ematea:*

Villasante euskaltzain buruak sarrera gisako txosten bat irakurtzen du. Eman diren urratsak zelan jarraitu diren adieraziaz.

Idazkiz hartu diren oharren berri eman da. Dudan dauden aditzak hobeto aztertzeke alde batera uzten dira, eta gainerakoak onhartzen dira.

Euskaltzain buruordeak, aurrerantzean honelako erabagiak hartzea luzeegi joan ez dadin, euskaltzain numerokoak batzarretara joateko ahalegina egitea eskatzen du.

Uztailaren 29ko erabakia aztertzen da. Dudagatik oraingoz alde batera uzten diren aditzen berri ematen da. Oharrak dituzten aditzok, batzordeak gogoan hartuko ditu, horiek soilik aztertzeko. Gainerakoa batzarturik dauden euskaltzainak aho batez ontzat hartzen dute: Villasante, Haritschelhar, Irigaray, Irigoyen, Lafitte, Satrustegi eta San Martin jaunek. Hauek gainera, batzartuak erabagitzen dutenaren alde, idazkiz eta poderioa emanez, jaun hauen berriak eman dira: Arrue, Dassance, Diharce, Eppherre, Larzabal, Lekuona, Lojendio eta Mitxelena jaun euskaltzainak. Esan bezala, oharrak jarritako aditzak gerorako utziaz. Onhartua multikopiatuaz zabaltzen da, geroago EUSKERAN argitaratzeko.

* * *

Bilbon, 1973ko Apirilaren 6an, goizeko hamaitetan bildu dira: Villasante buru, Mitxelena, Lafitte, Satrustegi eta Irigoyen euskaltzainak; Altuna, Berriatua, Aresti, Intxausti, Kintana, Oregi, laguntzaile eta aditz batzordekoak; Lekuonak (D. Manuel) eta Txillardegik beren ezin etorria adieraziaz beren oharrak bidali dituzte; Haritschelhar, San Martin, Diharce eta Iraizoz euskaltzainek beren ezin etorria adierazi dute. Txillardegik bere botoa aditz batzordeko bezala, Mitxelena jaunaren eskuetan uzten du. A. Diharcek bere poderioa Lafitteri ematen dio eta San Martinek Satrustegiri.

Bilera hau alde aurretik axola handikotzat hartua zen eta hala jakinerazi zien euskaltzain oso guztiei lehendakariak Martxoaren 23an egindako deian.

Batzarrak lehen osatu gabeko aditz laguntzaileen formak aztertu ditu batipat. Goizeko partea ordu bat eta erdietan mozten da eta arratsaldean jarraitu azterketa berean arratsaldeko zazpi t'erdia arte.

Bigarren batzarrerako utzi da azken orraztapena eta onartze gora-behera, bigarren batzarreko deiari jarraituaz eta Arautegia-
ren 25. artikulua araberan.

Bilbon, Euskaltzaindiaren etxean, 1973-ko Apirilaren 7an, goizeko hamaiketan bildu dira: Villasante buru, Mitxelena, Lafitte eta Irigoyen euskaltzainak; Altuna, Aresti, Berriatua, Intxausti, Kintana eta Oregi, laguntzaile eta aditz batzordekoak; Satrustegi jaunak azken orduan iritxiko dela adierazi du; Lekuonak (D. Manuel) eta Txillardegik beren ezin etorria adieraziaz beren oharrak bidali dituzte; Haritschelhar, San Martin, Diharce eta Iraizoz euskaltzainek beren ezin etorria adierazi dute. Txillardegik bere botoa aditz batzordeko bezala, Mitxelena jaunaren eskuetan uzten du, A. Diharcek bere poderioa Lafitteri ematen dio eta San Martinek Satrustegiri.

Bildu direnek azken azterketak egin ondoren bi aditz laguntzaileak batutzat eman dituzte eta Euskaltzaindiak bere birrespena legez eman dezan, beste erabakiok hartu dira. 1. Mitxelena, batzorde buruak, eta Altuna, batzorde idazkariak, egin dezatela onartuak diren adizki guztien zerrenda, ze asmoz eta zertarako aditza batu den azaldurik; 2. Zerrenda hau euskaltzain oso guztiei eta batzordekoei zabal dakiela, Gasteizko batzarrean denei barreiatu eta hamabost egunen buruan beren iritziak eman ditzaten. 3. Maiatzaren 25ean, Donostian egingo den batzarrean Euskaltzaindiaren birrespen ofiziala izango da.

Besterik gabe bukatzen da bilkura, batzarkideek agiri hau izenpetzen dutelarik.

ADITZ LAGUNTZAILE BATUARI (BIGARREN ZATIA)
BIRRESPENA EMATEKOAN

Jaunak:

Gure Arautegiaren terminologian, barrengo bilkura berezia da gaur goizean egiten dugun hau. Eta bidalitako deietarik badakizute, noski, zein den bilkura honetako gai nagusia: Aditz laguntzaile batuaren 2. zatiari birrespena ematea. Lehen zatiari eman zitzaionean esan nituenak, ez ditut berriz esango. Orduetik hona egin direnak gogoratuko ditut bakarrik.

Hementxe, Donostian, ihaz, Irailaren 29an egindako batzarrean, aditz horren lehen zatiari birrespena eman zion Euskaltzaindiak. Geroztik, urtearen azkenaldean, bilera bat egin zen Bilbon, Euskaltzaindiaren etxean, eta joan den Apirileko 6 eta 7an Bilboko gure etxean egindako bilkura berezietan, falta zena prestatua eta onartua izan zen.

Era hortara, aditz laguntzaile osoa, euskera batuan erabiltzekoa, gerturik eta onarturik dugu. Batzordeko idazkaritzak aditz horren kopiak garaiz atera zituen eta euskaltzain osoei eta batzordeko diren guztiei zabaldu zizkien. Oharrak bialtzeko, hilabeteko epea jarri zen.

Jaso diren oharrok batzorde idazkariari pasatu zitzaizkion. Gaur bilkura hontan geure artean ditugu batzordeko jaunak. Berrek emango dute ohar hoiengatik.

Batzordeko buru den Mitxelena jaunari eskatuko nioke, hitz gutxitan izango bada ere, esplika dezala egindako lanaren nondik norakoa. Aditz hau, alegia, bere ustez, noiz eta zer lan-klasetan erabiltzekoa den esan dezala. Aurreko zatia onartu zeneko agirian garbi esaten da aditz hau onartzeaz ez direla inola ere euskalkietako aditzak arbuizatzen. Euskera batuak ez dituela, alegia, euskalki batuetako formak galerazten. Beharbada orain ere hori esan behar da. Euskaltzaindia euskera batuaren alde egonagatik, ez dela, hargatik, euskalkien etsai. Bai batarentzat eta bai besteentzat ere badela tokia. Noiz zein erabili, bakoitzak ikusiko du, baina beharbada hortaz argitasun bat ematea ez legoke gaizki.

Jaunak: aditz hau gertatzeaz egin den urratsa ez da txantxetakoa izan, guttiz handia baizik. Aita Fernando Mendizabal-ek (batzordekoa bait da), Alemaniatik bere oharrak bialtzean, argi eta garbi aitortzen zidan bere poza, eta bai bere harridura ere, egin den lan handi honengatik. Orain bi-hiru urtetako gauzen egoera ikusi —zion berak— eta nork sinetsi behar zuen hain denbora gutitan maila hortara heltzea posible izango zenik?

Posible gertatu da, batzordekoen lan eta borondateari eskerak. Zorionak eman nahi dizkiet.

Batzorde idazkari eta burua mintzatuko dira orain beren argitasunak emateko. Eta ondoren, birrespenari dagokion botazioa egingo da. Birrespen hori aditz honi ematen baldin bazaio, lehen-bai-lehen gertatuko da argitaratze ofiziala, Mitxelena jaunaren hitzaurre batekin.

Beste puntutxo bat, ongi loturik uztea komeni dena. Aditz ofizial honen gainean Euskaltzaindiak egile-eskubideak zorrozki lotu eta galdatu behar ote ditu? Beste norbaitek, gure argitaratzearen ondoren, beste edizio bat egin nahi baldin badu, gure baimena eta baldinkizunak bete behar ote ditu?

Gramatika moduko lan batean hemengo adizkiak aipatzea eta jartzea zilegi izango dela uste dut. Eta aditz osoa, bera baka-rrik edo gramatikazko beste gauza batzuekin batean, sartu nahi baldin badu? Nolanahi ere, arazo honen mugak garbi uztea komeniko da, batez ere geroari begiratuaz.

Donostia, 1973, uztailak 27.

EUSKALTZAINDIAREN BILERA BEREZIA

(*Euskaltzain osoena*)

1973-7-27

Donostian, 1973ko uztailaren 27an, Gipuzkoako Diputazioan, Euskaltzaindiaren gelan, bildu dira: Villasante euskaltzainburua, Haritschelhar buru-ordezkoa; Arrue, Diharce, Irigoyen, Lafitte, Mitxelena, Satrustegi eta San Martin, euskaltzain jaunak.

Ezin etorria adieraziaz, beren poderioak eman dituzte: J. M. Lojendiok A. Irigaray-ri; Lafon-ek Villasanteri; Dassance, Epphere, eta Larzabalek Haritschelhar-i.

Hoiez gainera, Altuna, Berriatua, Intxausti, Kintana aditz batzordekoak, eta Lizundia idazkari-ordea.

Euskaltzainburuak, aditz-batua eratzeko izendatu zen batzordea eskertu du bere lanagatik, eta aldez aurretik euskaltzainen artean zabaldu den aditz laguntzaile bateratuaren aurkezpena egin du.

Ondorean, Mitxelena, lana azaltzeko eraz mintzatu da.

Hartu diren oharrak banan bana aztertzen dira: A. Irigaray, M. Lekucna, X. Kintana, I. Berriatua eta Mendizabal-enak dira. Oharrok aintzat harturik, hortaz ihardun da elkarrizketa, erizpideak puntuz-puntu begiratuaz. Eta, azkenik, botoetara jo da:

15 boto baietz eta 0 ezetz.

Aditz laguntzaile batua

I. IRAGANGAITZA

1. NOR

A1. naiz
haiz
da
gara
zara
zarete
dira

A2. naizateke
haizateke
dateke
garateke
zarateke
zaratekete
dirateke

OHAR A1: *da, gara, zara, dira* baina *den, garen, zaren, diren* eta *dela, garela, zarela, direla, etab.*

A3. nadin
hadin
dadin
gaitezen
zaitezen
zaitezten
daitezen

A4. banadi
bahadi
badadi
bagaitez
bazaitez
bazaitezte
badaitez

A5. naiteke
haiteke
daiteke
gaitezke
zaitezke
zaitezkete
daitezke

- B1. nintzen
hintzen
zen
ginen
zinen
zineten
ziren
- B2. nintzateke
hintzateke
litzateke
ginateke
zinateke
zinatekete
lirateke
- B3. nintzatekeen
hintzatekeen
zatekeen
ginatekeen
zinatekeen
zinateketen
ziratekeen
- B4. banintz
bahintz
balitz
bagina
bazina
bazinete
balira
- B5. nendin
hendin
zedin/ledin
gintezen
zintezen
zintezten
zitezen/litezen

OHAR B5: *etor zedin nahi nuen baina etor ledin nahi nuke,
etor zitezen nahi nuen baina etor litezen nahi
nuke.*

B6. banendi
bahendi
baledi
bagintez
bazintez
bazintezte
balitez

B7. ninteke
hinteke
liteke
gintezke
zintezke
zintezkete
litezke

B8. nintekeen
hintekeen
zitekeen
gintezkeen
zintezkeen
zintezketen
zitezkeen

C. (nadin)
hadi
bedi
(gaitezen)
zaitez
zaitezte
bitez

OHAR C: *Bedi* eta *bitez*-en ondoan *biz* eta *bira* ("hala *biz*" eta "hala *bira*") ere onartu dira; baina azken biok ez dira laguntzaile, sintetiko baizik.

2. NOR-NORI

A1.
natzaik/natzain
natzaio
.....
natzaizu
natzaizue
natzaie

A2.
natzaiake/natzainake
natzaioke
.....
natzaizuke
natzaizueke
natzaieke

hatzait

.....

hatzaio

hatzaigu

.....

.....

hatzaie

zait

zaik/zain

zaio

zaigu

zaizu

zaizue

zaie

.....

gatzaizkik/gatzaizkin

gatzaizkio

.....

gatzaizkizu

gatzaizkizue

gatzaizkie

zatzaizkit

.....

zatzaizkio

zatzaizkigu

.....

.....

zatzaizkie

zatzaizkidate

.....

zatzaizkiote

zatzaizkigute

.....

.....

zatzaizkiete

hatzaidake

.....

hatzaioke

hatzaiguke

.....

.....

hatzaieke

zaidake

zaiake/zainake

zaioke

zaiguke

zaizuke

zaizueke

zaieke

.....

gatzaizkiake/gatzaiz-
kinake

gatzaizkioke

.....

gatzaizkizuke

gatzaizkizueke

gatzaizkieke

zatzaizkidake

.....

zatzaizkioke

zatzaizkiguke

.....

.....

zatzaizkieke

zatzaizkidakete

.....

zatzaizkiokete

zatzaizkigukete

.....

.....

zatzaizkiekete

zaizkit
 zaizkik/zaizkin
 zaizkio
 zaizkigu
 zaizkizu
 zaizkizue
 zaizkie

zaizkidake
 zaizkiake/zaizkinake
 zaizkioke
 zaizkiguke
 zaizkizuke
 zaizkizueke
 zaizkieke

A3.
 nakian/nakinan
 nakion

 nakizun
 nakizuen
 nakien

A4.
 nakiake/nakinake
 nakioko

 nakizuke
 nakizueke
 nakieke

hakidan

hakidake

....
 hakion
 hakigun

....
 hakioko
 hakiguke

....

 hakien

....

 hakieke

dakidan
 dakian/dakinan
 dakion
 dakigun
 dakizun
 dakizuen
 dakien

dakidake
 dakiako/dakinake
 dakioko
 dakiguke
 dakizuke
 dakizueke
 dakieke

....
 gakizkian/gakizkinan
 gakizkion

....
 gakizkiako/gakizkinake
 gakizkioke

....
 gakizkizun
 gakizkizuen
 gakizkien

....
 gakizkizuke
 gakizkizueke
 gakizkieke

zakizkidan

.....

zakizkion

zakizkigun

.....

.....

zakizkien

zakizkidaten

.....

zakizkioten

zakizkiguten

.....

.....

zakizkieten

dakizkidan

dakizkian/dakizkinan

dakizkion

dakizkigun

dakizkizun

dakizkizuen

dakizkien

zakizkidake

.....

zakizkioke

zakizkiguke

.....

.....

zakizkieke

zakizkidakete

.....

zakizkiokete

zakizkigukete

.....

.....

zakizkiekete

dakizkidake

dakizkiake/dakizkinake

dakizkioke

dakizkiguke

dakizkizuke

dakizkizueke

dakizkieke

A5.

banakik/banakin

banakio

.....

banakizu

banakizue

banakie

bahakit

.....

bahakio

bahakigu

.....

.....

bahakie

badakit
 badakik/badakin
 badakio
 badakigu
 badakizu
 badakizue
 badakie

.....
 bagakizkik/bagakizkin
 bagakizkio

 bagakizkizu
 bagakizkizue
 bagakizkie

bazakizkit

 bazakizkio
 bazakizkigu

 bazakizkie

bazakizkide

 bazakizkiote
 bazakizkigute

 bazakizkiete

badakizkit
 badakizkik/badakizkin
 badakizkio
 badakizkigu
 badakizkizu
 badakizkizue
 badakizkie

B1.
 nintzaian/nintzainan
 nintzaion

 nintzaizun
 nintzaizuen
 nintzaien

hintzaidan

 hintzaion
 hintzaigun

 hintzaien

zitzaidan
 zitzaian/zitzainan
 zitzaion
 zitzaigun
 zitzaizun
 zitzaizuen
 zitzaien

.....
 gintzaizkian/gintzaizkinan

gintzaizkion

 gintzaizkizun
 gintzaizkizuen
 gintzaizkien

zintzaizkidan

 zintzaizkion
 zintzaizkigun

 zintzaizkien

B2.
 nintzaiake/nintzainake
 nintzaioke

 nintzaizuke
 nintzaizueke
 nintzaieke

hintzaidake

 hintzaioke
 hintzaiguke

 hintzaieke

litzaidake
 litzaiake/litzainake
 litzaioke
 litzauguke
 litzazuke
 litzazueke
 litzaeke

.....
 gintzaizkiake/gintzaizki-
 nake
 gintzaizkioke

.....
 gintzaizkizuke
 gintzaizkizueke
 gintzaizkieke

zintzaizkidake

 zintzaizkioke
 zintzaizkiguke

 zintzaizkieke

zintzaizkidaten

.....

zintzaizkioten

zintzaizkiguten

.....

.....

zintzaizkieten

zintzaizkidakete

.....

zintzaizkiokete

zintzaizkigukete

.....

.....

zintzaizkiekete

B3.

.....

nintzaiakeen/nintzainakeen

nintzaiokeen

.....

nintzaizukeen

nintzaizuekeen

nintzaiekeen

hintzaidakeen

.....

hintzaiokeen

hintzaigukeen

.....

.....

hintzaiekeen

zitzaidakeen

zitzaiakeen/zitzainakeen

zitzaiokeen

zitzagukeen

zitzazukeen

zitzazuekeen

zitzaekeen

.....

gintzaizkiakeen/gintzaizkinakeen

gintzaizkiokeen

.....

gintzaizkizukeen

gintzaizkizuekeen

gintzaizkiekeen

zintzaizkidakeen

.....

zintzaizkiokeen
zintzaizkigukeen

.....

.....

zintzaizkiekeen

zintzaizkidaketen

.....

zintzaizkioketen
zintzaizkiguketen

.....

.....

zintzaizkieketen

zitzazkidakeen

zitzazkiakeen/zitzazkinakeen

zitzazkiokeen

zitzazkigukeen

zitzazkizukeen

zitzazkizuekeen

zitzazkiekeen

B4.

banintzaik/banintzain

banintzaio

.....

banintzaizu

banintzaizue

banintzaie

bahintzait

.....

bahintzaio

bahintzaigu

.....

.....

bahintzaie

balitzait
balitzaik/balitzain
balitzaio
balitzaigu
balitzaizu
balitzaizue
balitzaie

.....
bagintzaizkik/bagintzaizkin
bagintzaizkio
.....
bagintzaizkizu
bagintzaizkizue
bagintzaizkie

bazintzaizkit
.....
bazintzaizkio
bazintzaizkigu
.....
.....
bazintzaizkie

bazintzaizkide
.....
bazintzaizkiote
bazintzaizkigute
.....
.....
bazintzaizkiete

balitzaizkit
balitzaizkik/balitzaizkin
balitzaizkio
balitzaizkigu
balitzaizkizu
balitzaizkizue
balitzaizkie

B5.

nenkian/nenkinan
nenkion

.....

nenkizun
nenkizuen
nenkien

henkidan

.....

henkion
henkigun

.....

.....

henkien

zekidan (lekidan)
zekian/zekinan (lekian/lekinan)
zekion (lekion)
zekigun (lekigun)
zekizun (lekizun)
zekizuen (lekizuen)
zekien (lekien) Ikus OHAR B5.

.....

genkizkian/genkizkinan
genkizkion

.....

genkizkizun
genkizkizuen
genkizkien

zenkizkidan

.....

zenkizkion
zenkizkigun

.....

.....

zenkizkien

zenkizkidaten

.....

zenkizkioten

zenkizkiguten

.....

.....

zenkizkieten

zekizkidan (lekizkidan)

zekizkian/zekizkinan (lekizkian/lekizkinan)

zekizkion (lekizkion)

zekizkigun (lekizkigun)

zekizkizun (lekizkizun)

zekizkizuen (lekizkizuen)

